

XANISTEBANAK OIARTZUN 2022

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

Argazkia: Erik Gartzia

Ongi aski dute egutegian markatu-ta oiartzuarrek abuztuko lehenengo astea. 2022ko egutegian bereziki. Aurten berriz ere Xanisteban Jaiek hartuko dituzte kaleak abuztuaren 2tik 6ra. 2020an eta 2021ean herriko eragileek, udalarekin elkarlanean, Kulturabirusa egitasmoari ekin zioten nolabait ere jaien hutsuneari aurre egiteko, eta esan beharra dago, arrakastatsu joan ziren; asmoa da irailean soka horri berriz ere tiratzea, kulturatik herria girotu eta aberasteko.

Baina festak, xanistebanak, bakarrak dira. Ia ordezkazekin. Asteartearekin botako dute Oiartzungo zerura jaien hasierako suziria Garmendia okindegiko langileek, herriko eragileek hala erabakita. Handik aurrera, ia 90 izango dira herrikideen batzordeak eta udalak elkarlanean antolatutakoak. Denetara gonbidatu dituzte oiartzuarrek eta bisitariak.

Beharbada, gehien itxarondako xanistebanak izango dira aurtengoak. Goza ditzatela gogoz, berdintasunean eta aske den-denek. X



 Haurtzaro Ikastola.eus
bizitzarako hezkuntza

 Ikastolenkartea

Ondo pasa Xanistebanetan!

Parte hartu gure ekintzetan eta
bisita gaitzazu ikastolako txosnan!



Abuztuaren 2an irudi hau berriz ere errepikatuko da Doneztebe Plazan. Erik Gartzia

Oiartzuar orok du tokia xanistebanetan

Jai Batzordeak herritar den-denek txokoa izan dezaten prestatu ditu Oiartzungo festetako ekitaldiak. Oiartzungo Feministen Asanbladak ekarpena egin dio egitarauari, eta gainera, txosna feminista izango du.

URKO ETXEBESTE

Abuztuaren 2ko arratsaldea iristeko ez da asko falta. Gutxi, kontuan hartzen bada 2020an eta 2021ean ez zela Xanisteban Jairik izan. Egun horretako 20:00ak inguruan hasiko dira Oiartzungo jaiak,

2019tik ospatzerik izan ez direnak. Pazientzia handia izan dute herritarrek, eta gehien-gehienek ulertu dute birus malapartatuaren eragina lausotzeko beharrezkoa zela ekintza sozial jendetsu oro murriztea, tartean, herriko festak. Iritsi da, ordea, eman ez diren besarkadak emateko eta konpartitu gabeko algarak egiteko momentua.

Xanistebanetako egitarauaren hitzurrean Jexux Leonet alkateak eskerrak eman dizkie Jai Batzordeko kideei, «gogotsu hartu dutelako jaiak antolatzeke erronka, espero eta nahi gabeko bi urteko geldialdiaren ondoren». Herritar guztientzako festak izango direla aurreratu du alkateak, eta hori, batzordekideei esker izango dela.

Jai feminista eta erasorik gabekoak

Oiartzungo Feministen Asanbladak egitarau propioa antolatu du ospakizunetarako. Artean, agerraldia (abuztuaren 2an, 18:30ean), bazkari beganoa edo bertso saioa antolatu dituzte (abuztuaren 4an biak, 14:30ean eta 17:00etan, hurrenez hurren), baita ahozko narrazio saioa (abuztuaren 5eko arratsaldean Arizmendienean), edo *Gu Agustina* ikuskizuna ere (abuztuaren 6an, 18:00etan). Txosna feminista ere egongo da jaietan.

Gainera, udalak, indarkeriarik gabeko gunea ezarriko du. Han, balizko erasoak erantzuteko tresnak ezagutaraziko dira, eta aldi berean, Sexu Bizigunea txokoan festetan aske eta bakoitzaren sexu aukerekin aske izateko informazioa emango da. Erasoen kontrako protokoloa QR kode bidez zabalduko da. ✕



Garmendia Galdos ahizpek irrikaz biziko dute jaien hasiera. O. Gerendiain

OLAIA GERENDIAIN

«Betidanik» izan dira okin. Zazpi anai-arreba dira Garmendia Galdos abizenak daramatzatenak, sei emakume eta gizon bat. Adinaren arabera hasi ziren geroz eta ardura zorrotzagoz murgiltzen okintza-ren munduan; lehenak, Belenek, 70 urte bete berri ditu; bi urteko aldearekin jaio ziren hurrengo hiruak: Marian, Maria Eugenia eta Maria Jesus. Mari Carmenek 62 urte ditu orain, 59 mutil bakarrak, Iñigok, eta 56 gazteenak, Mari Josek.

«Tira, gutxi gorabehera», esan du haietako batek, barre artean, adinez ari zirenean, hainbeste izanda zaila baita, zehatz mehatz, bataren eta bestearen urteak gogoratzea. «Atera familia libu-

Goiz ekoitzi eta etxez etxe banatu; ogia bakarrik ez

Garmendia okindegiko anai-arrebek botako dute aurten, Oiartzungo Jai Batzordeak proposatuta, xanistebanen hasierako suziria. «Urduri» daude, eta herriari eskertuta: «Maitasun asko jaso dugu».

rua!», bota du ahizpetako beste batek, barre artean ere.

Euren aitona-amonek fundatu zuten lehen denda Errenteria-Oreretan, eta zazpi gurasoek eman zioten jarraipena negozioari Oiartzunen. Bizi osoa eman dute azken horiek ere irin eta legami artean, eta iaz erabaki zuten Manuel Lekuona hiribideko okindegiko historikoa eskualdatzea. Bertan jarraitzen duen bakarra, soldatapeko gisa orain, Iñigo da.

«Nekeza da okinaren egunerokoa», aitortu dute, «urtean bi egunez besterik ez genuen ixten». Anai-arreben artean jaiegunak banatzen ahalegintzen baziren ere, normalki lan besterik ez zuten egiten. «Gaixo ere, pilula hartu eta lanera!».

Etxez etxe, ogia baino gehiago

Lanbideak akitu bai, baina asko ere eman diela esaten bat egin dute ahizpa guztiek, batez ere bizilagunengatik. «Pentsa, familia askoren hiru belaunaldi ezagutu izan ditugu guk haien etxeetara ogia eramaten!». Auzoz auzo eta baserri baserri eramaten zuten ekoitzitakoa goizero. Bozina jo, eta hortxe ateratzen ziren bizilagunak, egunerokoaren bila.

Bilkura horietan ogia ez ezik, herriko azken berriak ere elkarbanatzen zituzten okinek. «Eta askotariko aitortzak ere egiten zizkiguten askok», gogorarazi du zaharrenak, «apaizarenera bezala, konfesatokira zetozen gugana» [barrez].

Suziria botatzerako uneaz galdetuta, «urduri eta arduraz» bizi dutela eginbeharra aitortu dute. «Oraindik jendea hurbiltzen zaigu kalean egin dugun lana eskertzeraz; maitasun asko jaso dugu». ✕

maitane zubizarreta
arkupe
horts klinika

periodontzia
implantologia
kirurgia
protesia
ortodontzia
ortopantografia

10 URTE HERRIARI
ZERBITZUA ESKAINTZEN,
MILESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

Kontzeju plaza, 7 • 20180 Oiartzun • 943 57 39 23

XXXIV. SOKATIRA TXAPELKETA

Jaiak bestela ospatzeko tiraka

Abuztuaren 3an, XXXIV. Sokatira Txapelketa egingo dute xanistebanetan. Bertan arituko dira herritarrak uda entrenatzen igaro ostean. Maialen Mendizabal eta Ainhoa Aldai dira horietako bi.

BEÑAT AGIRRESAROBÉ

Aurten, hogeita hamalagarrenez egingo dute Auzoz Auzokako Sokatira Txapelketa, abuztuaren 3an, hain zuzen ere. Iraganean ospe handia izan zuen herri kirolak Oiartzunen, baina azken urteetan beheraldia bizi ostean, gazte belaunaldietan zaletasuna berpiztu dela dirudi. Abuztuaren 3a, sokatiran aritzeko eguna elkartzeko ez ezik, elkartzeko eta elkar ezagutzeko eguna ere izango da. Hala diote Maialen Mendizabal eta Ainhoa Aldai sokatiralari oiartzuarrek.

Txapelketaren ostean, afaria egiten dute parte hartzaileek. Aldairentzat «oso deigarria da», eskaintza bakarra ez delako kirola: «Normalean elkartzen ez garen talde txoekin egiten dugu afaria eta parranda, urte osoan ibiltzen ez garen horiekin».

Generoka aritzen dira, eta biek ala biek auzoz auzo taldeak osatzeko zailtasunak badituzte ere, badago gizon eta emakumezkoen arteko ezberdintasunik. «Hasteko, gizonzkoek auzoka tiratzen dute. Horrek esan nahi du auzo bakoitzeko zortzi pertsona aurkitu behar dituztela, kilo horietan sartzeko. Nesketan lau talde egiten ditugu, pandemia



Hainbat emakume oiartzuar, xanistebanetako sokatira txapelketa prestatzeko entrenamendu saioan.

A.A./M.M.

aurreko urtean bost atera baziren ere», dio Mendizabalek. Gizonzkoek ez dute auzo guztietako taldeak sortzea lortzen, hala ere. Helburua bi lehiaketak auzo guztietako taldeekin osatzea izanik, oraindik sentsibilizazio lan handia egin behar dela azaldu dute bi tiralariek.

Egungo egoerak, ordea, onurak badi-tuela adierazi du Aldaik. «Emakumeen taldeak ahal den moduan moldatzen ditugu, pisuaren arabera. Horrenbestez, gizonzkoena gutxietsi gabe, gurea oso proiektu irekia da».

Beerlagun **GORA XANISTEBANAK!**

www.oarsoak.com

UGALDETZO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Ongi pasa
xanistebanetan!

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

www.goieko.com



Urte osoan Oiartzunen jendaurrean aritzeko hitzordu bakarra izateak, garrantzia berezia ematen dio xanistebanetako txapelketari. Izan ere, uda hasieratik aritzen dira entrenatzen herriko lehiaketarako, eta aurten, deialdiak lehenagotik egiten hasi izanagatik, harrera hobea izan dute. Polean norbere pisua altxatzetik Madalensoren taldeen arteko saioak egiteraino, orotariko ariketak egiten dituzte, bakarka nahiz taldeka.

GOGORRA DA

Kirolaren gogortasunaz ere mintzo da bikotea. «Soka gerri azpian sartu behar duzu, saihets inguruan zauriak egiten dituzu, udan entrenatzen da, eta alferkeria eta beroa dira nagusi». Horrek, or-

dea, ez ditu parte hartzaileak atzera botatzen. Are gutxiago, uda hasieran probatzera hurbiltzen diren gehienek kirolari eusten diotela adierazi du Mendizabalek. Entrenamenduetako osaerari dagokionean, emakumeek astean bitan entrenatzen dute normalean, eta gutxi dira mutilei eskatzen dizkieten mesedak. «Noizbait suertatu da mutilei zageroa [sokari atzeko aldetik eusten diona, indar eta pisu aldetik handiena] eskatu digula».

ERRESPETUZKO KIROLA

Taldeak osatzerako garaian, emakumeek lehen egunean duten pisuari erreparatzen diote, ez auzoari. Horrek, bada, inoiz inolako oztoporik eragin duenik ez du sumatu Aldaik. Txapelketa egunean, lehiaketa hasi baino ordubete lehenago, denak pisatzen ohi direla eta handienek «gaizki sentzitzeko aukerarik ez dutela» uste du Mendizabalek.

Gizonezkoek pisua neurtzearekin arazo handiagoa dutela iritzi diote biek. Izan ere, udaren hasieratik asko egin dezake pisuak gora edo behera; oporrak, parrandak eta bestelakoak tarteko. Orduan, txapelketa egunerako ahalak eta bi egin eta pisua egokitzen dute. «Guk ez dugu pisuaren araberako trabarik jaritzen».

Aldai eta Mendizabalentzat, zaletzeko kirol erraza da. Lehenak, atletismoa egin ondoren, denbora pasa zuen kirolen artean noraezean. Ahizpak gonbita egin zionean, berehala onartu zuen. Mendizabali lagunek egin zioten gonbita, eta aurtengoa laugarren urtea izango du. ✕

«Gizonezkoek auzoka tiratzen dute. Nesketan lau talde egiten ditugu, pandemia aurretik bost atera baziren ere»

Maialen Mendizabal

Sokatiralaria

«Emakumeen taldeak ahal den moduan moldatzen ditugu. Horrenbestez, oso proiektu irekia da»

Ainhoa Aldai

Sokatiralaria

elizalde

HERRI ESKOLAK
XANIXTEBAN
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
www.elizalde.eus
Manuel Lekuona, 5 - Oiartzun
HH-LH: 943 49 01 93 - DBH: 943 89 92 83

Matteo
JATETXEA

Egunero irekita.
Bazkariak 13:00etatik aurrera.
Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

Iurrita bidea, 2 behea. Ugaldetxo.
20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com

www.amoralpuchero.com

943 49 11 94 667 713 584

KARTELA

«Argi nuen hasieratik jendeak izan behar zuela protagonista»

IRAITZ ARABOLAZA
ETXENAGUSIA ARTISTA

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

2018an ere zure kartela hautatu zuten Xanisteban Jaiak iragartzeko, eta Kontzejupea irudikatu zenuen. Aurten, herritarrak.

Musukoa kendu zigutenean inspiratu nintzen. Oso emozionatua nengoen jendearen irribarreak ikusten eta Oiarztzongo kartelaren lehiaketa egingo zela argitaratu zutenean esan nuen: 'Jendea pozik agertu behar da eta kontaktu fisikoa egon behar du. Azken bi urteetan eduki ez duguna'. Argi nuen hasieratik

jendeak izan behar zuela protagonista.

Hori kolorea da baita ere protagonista. Erabaki horren atzean zer dago?

Marraskia aspaldi egin nuen, ideia etorri zitzaidanean. Ez nekiena zen hondoko kolorea zein izango zen, eta egon nintzen azken momentura arte itxoitzen ea Oiarztzongo jaietako bazkariko kamiseta zein kolorekoa izango zen. Nahi nuen kartela kamisetaren kolore berdinekoa izatea, bai ala bai. Azkenean, laguntxo batek aurreratu zidan erabili dudako kolorekoa izango zela elastikoa, baina egia esan, azkenean ez dakit zein koloretakoa izango den kamiseta... Bestalde, mostaza kolore hori nire kolore bezala identifikatzen dut, nire parte txiki bat ere jarri dut horrela.

Herritarrez gain plazako iturria dago.

Hasiera batean jendea bakarrik irudikatu nuen, baina esan nuen: 'Edozein herritako jaiak izan daitezke'. Orduan, Oiarztzun identifikatzen zuen zerbait sartzea erabaki nuen. Udaletxea, adibi-



Instagramreko 'iraitez_paintings' kontuan jarrai daiteke sortzailearen lana. **Alaine Aranburu**

dez, sartzeko handiegia iruditu zitzaidan, eta herria sinbolizatzen duten horietan pentsatuz iturria etorri zitzaidan burura. Errekonozitzeko erraza zen zerbait nahi nuen, eta hori sartu nuen hondorako.

Irabazi zenuenean nola jaso zenuen berria?

Sorpresa izan zen. Abuztuaren 1ean joan behar dut udaletxera saria jasotzera. Egun berezia izango da, izeba, ama eta osaba elkartzeko gara. ✕

KIRIKOKETA
eutsi jaiari!

Aialde, 1
Oiarztzun
943 26 07 78

Oiarztzongo Estankoa
Tabakoa, loteria eta opariak
Tel.: 943 49 16 11
Doneztebe plaza, 11
OIARTZUN

Ongi pasa Xanistebanak!

Oiartzo IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

**Gora Xanistebanak!
Eta biba zuek,
gazteak!**

www.oiarztzoikastola.eus

IKASTOLA EREDUA
Ikastolamokurrak

Jolaserako erabiltzen den hura ez da gozatzen ari

OLAIA GERENDIAIN

Animaliarik gabeko jaien alde borrokatzeko sortu zen Aska Itzank Animaliyak (AIA) taldea 2020ko Txerri Egunaren atarian. «Herrian baginen batzuk gogoz ginenak festetan animaliak erabiltzeko eredua ezabarazteko», azaldu du Lide Treku Urreta taldekideak. Horrela, «jende pilo» elkartu ziren, eragiteko.

Propositu horiek hazten eta epe luzera begirako bilakatzen joan ziren denborarekin, eta murrizten joan zen AIA. Egun lau lagun dira konpromiso osoz lanean



Pottoken gainean ibili ordez, puzgarriekin dibertitzeko aukera emango du AIAk. Nagore Vega

dihardutenak, talde handiko beste askok kolaboratzen jarraitzen badute ere.

Xedea garden adierazi du Trekuk: «Festetan erakusgai jartzeko edo haiekin dibertitzeko, komatxo artean, erabiltzen diren animalien jarduerak ezabatzea». Hori horrela izanik ere, etxetik eta etxean eragin nahi dute; bizilagunak hausnarrarazi, «gu ere bagarelako hemengo festetan parte, eta aldatu nahi ditugulako».

Xanistebanetara begira, badira egitarauan animalien erabilera barne hartzen

duten jarduerak, eta hori «pena» dela usate du AIAko kideak. «Egia da udalak atak ireki dizkigula jai batzordean parte hartzeko, baina hau zerbait orokorra izan behar da, dena gure gain uzten ari baitira, eta bakarrik ezin dugu».

Bi proposamen prestatu ditu AIAk datorren asteazkenerako: 07:00etan (sokamuturra egiten ari den bitartean) Gosari Txow Done Eztebe plazan, eta 11:30ean (pottoka eta zezen ttikien ordu berean) ur puzgarriak, Haurtzaro Ikastolan. ✕



 **London**
School of languages

Closer than you think

Lortu nahi duzuna

**2022-2023
MATRIKULA
IREKIA**

- Ingelesa eta frantsesa
- Maila eta adin guztiak

london-school.com

Erik Gartzia



SOKADANTZA ETA TXUPINAZOA

Abuztuaren 2an, 19:30an. Jaiak has- teko, udalbatzako kideen sokadantza lehenik eta ondoren, Garmendia okin- degiko kideen eskutik txupinazoa. Done Eztebe plazak jasoko ditu 2022ko xanistebanak hasteko bi ekitaldi hor- riek. Jendea biltzen hasiko da.



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

HITZA



MUSIKA URBANOA

Abuztuaren 2an, 23:30ean. Txosna- guneak jasoko du festetako lehen kon- zertu handia lehen orduetan, herriko eta kanpoko rap eta trap abeslariekin: Bengo (irudian), Txiltxoko, Tribade eta Ziztada izango dira errima urbanoak jar- tzen Oiarzungo festei.

Imanol Saiz



AZOKARA

Abuztuaren 4an, 10:00etan. Baserri- tarren Eguna da abuztuaren 4koa. Ber- tan, Done Eztebe plazan ezin falta Oiar- zungo Produktu Ekologikoen Azoka, Arraztalo Elkarteko nahiz HemeGuk taldeko ekoizleenak. Herriko produk- tuak, jaietan.

HAATIK



'ERRIMAK BI OINETAN'

Abuztuaren 4an, 22:00etan. Areto barruko ekitaldi bakan batzuk daude xa- nistebanetan. Horietako bat da Haatik Dantza Konpainiak abuztuaren 4an Elorsoro kiroldegian emango duen ikus- kizuna: *Errimak bi oinetan*. Kultura, le- tra larriz, xanistebanetan.

**GORA
XANISTEBANAKI!**



Abuztuan oporretara goaz

URKIA

Erik Gartzia



GAZTE EGUNA

Abuztuaren 5ean. Gazteen, eta gazte sentitzen direnen eguna da abuztuaren sekoa: 13:30ean gazte txupinazioa, 14:30ean bazkaria, eta 17:00etan kua-drillen arteko bingoa eta jolasak, denak Done Eztebe plazan.

Erik Gartzia



BURRUNBA

Abuztuaren 6an, 10:30ean. Ez hain gazteen arkume erretzearen eta bazkariaren aurretik (14:30), ziurrenik haien seme-alaba direnek danborrada egingo dute Elizaldetik. Errekan denak txukun, burrunbak hartuko du Oiartzun.

HITZA



'GU AGUSTINA'

Abuztuaren 6an, 18:00etan. Agustina Otaola erraketista errenteriarraren bitzita laburbiltzen duen ikuskizuna da *Gu Agustina*, Ereintza Dantza Taldearena. Beheko Plazan da, eta Oiartzungo Feministen Asanbladak antolatu du.

Ongi pasa jaiak!
Gora Xanistebanak!

EROSKI city

BERTAKO SUPERMERKATUA

Olalde kalea 4/5 behea.
943 26 03 45 Altzibar.
OIARTZUN

HARATEGIA

LIZAR

URDAITEGIA

Ongi pasa Xanistebanak!

Elorrondo 18 - Oiartzun - 943 49 19 72



IPARBUS

943 49 18 01
www.iparbus.com

*Festak,
askatasun eta errespetutik,
dibertimendu, plazer eta
gozamenerako!*

Indarkeriarik gabeko gunea

- Babes eta elkartasun gunea.
- Indarkeriari aurre egiteko bitartekoak.
- Erreferentzia gunea.
- Defendatzeko gaitasunaz jabetzeko.
- Babes tresnak eskaintzea.
- Indarkeria sexistaren bizipenak jasotzeko.
- Erasotzaile izan daitezkeenei dena ez dela libre adierazteko.
- Erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela ohartaraztea.
- Herritarrak indarkeria sexistaren gaiaz kontzientziatzea.

Sexologia gunea

- Sexologia zerbitzu ibiltaria.
- Erotika osasuntsua bizitzeko.
- Prebentzio materiala, informazio eta arreta.
- Sexualitatea: plazera, prebentzioa, jokabideak, antisorgailuak, gorputza, plazera, erotika, lgtbiq+ informazioa.
- Harreman osasuntsuak, maitasun ona, berdintasuna, aukerak, komunikazioa, hezkuntza.
- Preserbatiboak, larrialdi-biderapen txartelak, gidak, e.a.

Noiz eta non?

**17:00-20:00 Plazan
22:00-00:00 Txosnetan**

Abuztuak 2

17:00-20:00 Plazan

**10:30-13:30 Plazan
17:30-20:00 Txosnetan**

Abuztuak 4

17:30-20:00 Plazan

11:00-14:30 Txosnetan

Abuztuak 5

11:00-14:30 Txosnetan

**11:30-14:30 Plazan
22:00-23:30 Txosnetan**

Abuztuak 6

11:30-14:30 Plazan



**OIARTZUNGO
UDALA**